



OSPITALEZ KANPOKO GELDIALDIA SOR DITZAKETEN ARRAZOI NAGUSIAK

Emergentziak
Emergencias



BIHOTZ GELDITZEAREN ARRAZOI NAGUSIAK




GARUNEKO HODIETAKO ISTRIPUA. ZER DA?. ARRISKU-FAKTOREAK

Emergentziak
Emergencias

GARUNEKO HODIETAKO ISTRIPUA



Garuneko edozein aldetan izandako odol horniduraren etena da eta bat-bateko aldaketa neurologikoa eragiten du. Garuneko hodietako istripu iskemikoa edo hemorragikoa izan daiteke.




GARUNEKO HODIETAKO ISTRIPUA. SINTOMAK

Emergentziak
Emergencias


GARUNEKO HODIETAKO ISTRIPUA



Sintomak



Aurpegiaren asimetria
Ahoaren okertzea
Ezohiko mintzaira



Buruko min handia

Konbultsioak

Ahulezia edo paralisia
besoetan eta hanketan

GARUNeko HODIETAKO ISTRIPUA. ZER EGIN?

Emergentziak
Emergencias

GARUNeko HODIETAKO ISTRIPUA



Bizirik irauteko katea

Tratamendu eraginkorra istripua gertatu eta lehen orduetan ospitalean ematen dena da. Horregatik, detekzio goiztiarra premiazkoa da gaixoaren bizitza salbatzeko eta ondorioak gutxitzeko.



Gaixoa konortea galdua badago, alboz jarri, segurtasun posizioan, eta ez utzi mihiak edo gonbituek aire-bidea itxi dezaten. Arnasa ez badu normaltasunez hartzen, bihotz-biriketako berpizte maniobrak egin.


↓ Zer ez egin

- Ez galdu denbora larrialdietarako telefonora deitu aurretik sinide, lagun eta abarrei deituz.

BULARREKO MINA. ZER DA? SINTOMAK

Emergentziak
Emergencias

BULARREKO MINA



Faktore askok eragin dezakete bularreko mina. Horietako batzuk garrantzi txikikoak dira, baina beste batzuk, miokardio infartua edota bihotzeko angina, esate baterako, hilgarriak izan daitezke garaiz diagnostikatu ezean.

Sintomak

Antsietatea

Zorabioak edo konortea galtzea.


Goragalea edo gonbitoak.

Arnasa hartzeko zailtasunak.

Bularreko mina

Min handia edo ondoez hutsa izan daiteke. Sorbalda, beso, lepo, masail eta bizkarrera ere zabaldu daiteke.

Izerdia



BULARREKO MINA. ARRISKU FAKTOREAK


Emergentziak
Emergencias

BULARREKO MINA



Arrisku-faktoreak

Herentzia-faktoreak



BULARREKO MINA. ZER EGIN?

Emergentziak
Emergencias

BULARREKO MINA



Bizirik irauteko katea

Bihotzekoak eragindako heriotzetako asko biktima ospitalera iritsi aurretik gertatzen dira, sintomak agertu eta lehen ordubetean gehienak. Horregatik, behar-beharrezkoa da bihotzekoaren seinaleak zein diren jakitea eta ezagutzeko gai izatea.

Bihotzeko atake bat izan daitekeela susmatzea.

Berehala deitu emergentzietako 112 telefono--zenbakira.

Nagusientzako aspirina eman, alergikoa ez bada.

Gaixoak bularreko anginaren aurrekaririk eta minik badu, nitroglizerina hartuko du mihipetik. Bost minututan mina arintzen ez bada, berriro hartuko du nitroglizerina, eta 112ra deituko da.



↓ Zer ez egin

- Arazoa ez gutxietsi, gaixoak zerbait larria gertatzen zaiola ukatu arren.
- Ez egon zain ea pasatzen zaion, larria ez delakoan.
- Ez familia guztiari jakinarazi, emergentzietako zenbakira deitu aurretik.
- Ez utzi gaixoari esfortzuak egiten (dutxa hartzen edo janzen, esaterako).
- Ez atarira jaitsi, anbulantziari itxarotera.

BULARREKO MINA. ZER EGIN?

Emergentziak
Emergencias

BULARREKO MINA



Bizirik irauteko katea

Bihotzekoak eragindako heriotzetako asko biktima ospitalera iritsi aurretik gertatzen dira, sintomak agertu eta lehen ordubetean gehienak. Horregatik, behar-beharrezkoa da bihotzekoaren seinaleak zein diren jakitea eta ezagutzeko gai izatea.



Biktimaren erantzuteko gaitasuna eta arnasa zaindu etengabe. Bihotz-birikak berpizteko maniobrak (BBB) egin (bihotz-masajea eta aireztapena), beharrezkoa bada.

Ospitalean sartu aurretik izaten diren heriotzen eragile nagusia bentrikuluen fibrilazioa da. Desfibriladore bat erabili, eskura izanez gero.



Desfibriladore automatikoak edo erdiautomatikoak jartzen hasi dira joan-etorri handiko toki publikoetan, aireportuetan eta merkataritza zentroetan esaterako.

ITOTZEA. ZER DA?


Emergentziak
Emergencias

ITOTZEA



Oso ohikoa ez bada ere, arnasbidea erabat edo modu larrian buxatzea minutu batzuetan heriotza eragin dezakeen larrialdia da. Alkohol-maila altuak eta hortz-protesiek arrisku hori handitzen dute.

Arnasbidearen buxadura objektu arrotzen batek (haragiak, batez ere) eragin dezake. Partziala edo erabatekoa izan daiteke.



ITOTZEA. BUXADURA ARINA. ZER EGIN?

Emergentziak
Emergencias

ITOTZEA



Buxadura partziala

Buxadura partzialak airea biriketan sartzen uzten du.
Gaixoak arnasa hartu eta eztu egin ahal du.



Gauza bakarra egin behar da:
biktimaren ondoan gelditu eta
eztu egitera behartu. Objektu
arraroren bat kanporatzeko
modurik eraginkorrena indartsu
eztu egitea da.

ITOTZEA. BUXADURA LARRIA. ZER EGIN?

Erabateko buxadura

Biktimak ezin du ez hitz egin, ez amasa hartu, ezta indarrez eztul egin ere.

Lepoa eskuez hartzen da, hatz lodi eta erakusleen artean; asfixiaren zeinu unibertsala.

Hots zorrotzak egin ditzake amasarekin.

Baliteke larruazalak tonu urdinxka hartzea.




ITOTZEA. BUXADURA LARRIA. ZER EGIN?

Emergentziak
Emergencias

ITOTZEA



Nola jokatu erabateko buxadura baten aurrean?



3 Bost kolpe siku eman eskapulen artean beste eskuaren orpoarekin.

1 Biktima artatuko duen pertsona biktimaren aldamenean eta apur bat haren atzean kokatuko da.

4 Kolpe bakoitza emandakoan, baieztatu gorputz arrotza irten den.

2 Esku batez bularrari heldu eta biktima aurrerantz makurtu.

↓ Zer ez egin

- Ez atzamarrik sartu biktimaren ahoan gorputz arrotzaren bila, lehenago ikusi ezean.

ITOTZEA. BUXADURA LARRIA. ZER EGIN?




Nola jokatu erabateko buxadura baten aurrean?

Arazoa konpondu ez bada, sabelaldea bost aldiz estutuko da.

- 1 Biktimaren atzealdean jarri eta besoez inguratu sabelaren goiko aldea.

- 2 Ukabila itxita jarri zilborraren eta estermoiaren azkenaren artean.



- 3 Ukabilari beste eskuaz heldu eta barrurantz eta gorantz kolpe sikuak emanez sakatu. Bost aldiz errepikatu hau.

- 4 Buxadura ez bada konpondu, bizkarrean eman beharreko bost kolpeak eta sabelaldean egin beharreko zapalkuntzak txandakatu, arazoa konpondu arte edo biktimak konortea galdu arte.

ITOTZEA. BUXADURA LARRIA. ZER EGIN?

Emergentziak
Emergencias

ITOTZEA



Nola jokatu erabateko buxadura baten aurrean?

Gizen edo haurdun dauden pertsonekin, sabelaldean zapaldu beharrean esternoiaeren erdialdean egin.



Esternoiaeren erdialdea

ITOTZEA. BUXADURA LARRIA. ZER EGIN?

Emergentziak
Emergencias

ITOTZEA



Nola jokatu erabateko buxadura baten aurrean?

Biktimak konortea galduz gero, lurrean etzanda jarri behar da.



Berehala deitu 112 larrialdietarako telefonozenbakira.



Bihotz-biriketako berpizte maniobrak (BBB) (masajea eta arnasketa) egin. Gaixoaren arnasbidea irekitzen den bakoitzean, azkar aztertu ahoa, ea gorputz arrotza kanporatu duen.

Maniobra horiek egiten jarraitu, gaixoak gorputz arrotza kanporatu arte.



ISTRIPUAN TRAUMATISMOAK. ZER EGIN?

Emergentziak
Emergencias

ISTRIPUAN TRAUMATISMOAK DAUDENEAN

Nola jokatu istripu baten aurrean

Istripu baten biktimak artatzerakoan, oso inportantea da segurtasun-neurri batzuk hartzea, sorosleen eta biktimen bizitza arriskuan jarri ahal duen beste istripurik ez izateko.

Ibilgailua galtzadatik kanpo edo bazterbidean utzi, eta emergentziazko argiak piztu.

Ibilgailua modu seguruan utzi; ez bat-bateko mugimendurik egin. Esku-balazta jarri.

Matxuretako triangeluak jarri.

Ibilgailuaren giltza kendu kontaktutik.



ISTRIPUAN TRAUMATISMOAK. ZER EGIN?

Emergentziak
Emergencias

ISTRIPUAN TRAUMATISMOAK DAUDENEAN

Nola jokatu istripu baten aurrean

Istripu baten biktimak artatzerakoan, oso inportantea da segurtasun-neurri batzuk hartzea, sorosleen eta biktimen bizitza arriskuan jarri ahal duen beste istripurik ez izateko.

Biktimak artatu. Zaurituengana hurbildu eta nola dauden galdetu. Zenbat dauden eta erantzuten duten ikusi.

↓ Zer informazio eman 112an

- Deitzeko erabiltzen ari garen telefonoaren zenbakia
- Gertakariaren tokia, ahalik eta zehatzen
- Egoera arriskutsurik badagoen
- Ibilgailuen barruan biktimaren bat harrapaturik badagoen
- Zaurituen kopurua, jakitekotan
- Ez eskegi telefonoa, esan arte

Ez mugitu zauritu larriak

Gasolina edo antzekoen isuriak bilatu, eta ez utzi inguruan erretzen.



ISTRIPUAN TRAUMATISMOAK. ZER EGIN?

Emergentziak
Emergencias

ISTRIPUAN TRAUMATISMOAK DAUDENEAN



Nola jokatu istripu baten aurrean

Biktima mugitu behar bada, batera egin, bizkarrezurra mugi ez dadin eta ornoen edo orno-muinaren lesiorik ez izateko, halako zaurituetan maiz gertatu ohi dira eta.



'Reutek' maniobra ere erabil daiteke; biktima atzetik besarkatu eta narras eraman, baina burua posizio neutroan eta bizkarrezurra eskuz immobilizatuta.




Ez mugitu zauritu larriak

Balizko lesioak ez larriagotzeko, traumatismo larri bat daukan biktima ez du aditua ez den inork mugitu behar, egoera hauetakoren bat izan ezean:

- Erreskatatzaileak edota biktimak arriskuan daude, esaterako, ibilgailuak su hartzeko arriskua dagoelako edo erregaiak daudelako.
- Biktimak bihotz-birikak geldituta ditu eta berpizte maniobrak behar ditu.
- Biktima larriago batengana heltzeko bidea oztopatzen ari da.

ISTRIPUAN TRAUMATISMOAK. ZER EGIN?



Nola jokatu istripu baten aurrean

- Zaurituak erantzuten ez badu, amasketa aztertu. Ez badu arnasa normaltasunez hartzen, BBB maniobrak abiatu
- Arnas egiten badu, arnas-bidea irekita eduki, eta bizkarrezurra zaindu. Horretarako, biktimaren burua posizio neutroan jarri.
- Konorte gabeko gaixoan, arnasbidea eskuz kontrolatu lepoa mugitu gabe.
- Istripua izan dutenei, ez kendu kaskoa.
- Kanpoko odoljariora kontrolatu eskuez zapalduta.
- Ez kendu zaurituari sartuta dituen objektuak.
- Biktima estali, beroa gorde dezan.
- Ez utzi biktima bakarrik.